

Aurrekontuak

Proiektua

2019

Proyecto

Presupuestos



GAI OROKORRAK

1

TEMÁTICA GENERAL

AZALPEN-MEMORIA

Ekonomia- eta Aurrekontu-politikaren inguruko orientazioak
Politika Publikoak
Baliokidetasunak Kontabilitate Nazionalen
Lege-proiektuaren Testu Artikulatuari buruzko iruzkinak
Erakunde-egitura eta Aurrekontu-egitura

MEMORIA EXPLICATIVA

- Orientaciones de Política Económica y Presupuestaria
- Políticas Públicas
- Equivalencia en Contabilidad Nacional
- Comentarios al Texto Articulado del Proyecto de Ley
- Estructura Institucional y Estructura Presupuestaria

Aurrekontuak

Proiektua

2019

Proyecto

Presupuestos

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan
aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo
de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpa>

Argitaraldia / Edición: 1.a 2018ko urria / 1ª, octubre 2018

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Ekonomia Saila / Departamento de Hacienda y Economía

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa / Imprime: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua / Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco


Azalpen-memoria

Memoria Explicativa

1 Alea
Tomo 1

Aurkibidea / Índice :

| | | |
|------|---|-----|
| I. | EKONOMIA- ETA AURREKONTU-POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK 1 <i>ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA</i> | 1 |
| II. | POLITIKA PUBLIKOAK 27 <i>POLÍTICAS PÚBLICAS</i> | 27 |
| - | ADMINISTRAZIO OROKORRAREN AURREKONTUEN LABURPENAK 95 <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL</i> | 95 |
| - | ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ORGANISMO AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK 105 <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS Y DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i> | 105 |
| - | ENPRESA- ETA FUNDAZIO-SEKTORE PUBLIKOEN (ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAK, SOZIEATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK) AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK 109 <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL Y FUNDACIONAL (ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS)</i> | 109 |
| III. | ADMINISTRAZIO OROKORRAREN AURREKONTU-SALDOAREN ETA KONTABILITATE NAZIONALAREN SALDOAREN ARTEKO BALIOKIDETASUNA. EGONKORTASUN-HELBURUAK..... 123 <i>EQUIVALENCIA ENTRE EL SALDO DEL PRESUPUESTO DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL Y EL SALDO DE CONTABILIDAD NACIONAL. OBJETIVOS DE ESTABILIDAD</i> | 123 |
| IV. | LEGE-PROIEKTUAREN TESTU ARTIKULATUARI BURUZKO IRUZKINAK..... 133 <i>COMENTARIOS AL TEXTO ARTICULADO DEL PROYECTO DE LEY</i> | 133 |
| V. | EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEEN ZERRENDA..... 149 <i>RELACIÓN DE ENTIDADES DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i> | 149 |
| VI. | ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ORGANISMO AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN AURREKONTU-EGITURAK..... 153 <i>ESTRUCTURAS PRESUPUESTARIAS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS Y DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i> | 153 |
| - | EGITURA ORGANIKOEN ZERRENDA..... 155 <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ORGÁNICAS</i> | 155 |
| - | EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: GASTUA 177 <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-GASTO</i> | 177 |
| - | EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: DIRU-SARRERA 199 <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-INGRESO</i> | 199 |
| - | EGITURA FUNTZIONALEN ZERRENDA..... 219 <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS FUNCIONALES</i> | 219 |



**I. EKONOMIA- ETA AURREKONTU-POLITIKAREN
INGURUKO ORIENTAZIOAK**
***ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y
PRESUPUESTARIA***

POLITIKA EKONOMIKOA ETA AURREKONTU POLITIKA: TESTUINGURUA ETA ORIENTABIDEAK

POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA: CONTEXTO Y ORIENTACIONES

1. 2019ko aurrekontua testuinguruan kokatzeko egoera ekonomikoa

2019ko aurrekontuak hazkunde positiboko testuinguru batean kokatzen dira, baina arriskuak gorantz doaz. Nazioarteko erakundeek egonkortasuna aurreikusten dute munduko ekonomiaren 2018ko hazkunderan, moteltzeko joera arina izango duena 2019an. Izan ere, Consensus Forecastek iraillean argitaratu zituen aurreikuspenek %3,3an kokatzen dute munduko ekonomiaren hazkundera tasa 2018an eta %3,1ean, berriz, 2019an. Tasa horiek adierazten dute munduko ekonomiak erritmoari eusten diola eta gero eta herrialde gutxiagok erakutsiko dutela gehikuntza tasa handiagoak. Alderdi gakoa merkataritzako hesien gauzatzea da, horrek munduko merkataritza galgatuko duelako eta ziurgabetasuna handituko duelako, inbertsioan eragin negatiboa utziz.

Ekonomia aurreratuei dagokienez, AEBetako ekonomia hazkundera %2,9an kokatuko da 2018an eta zertxobait apalduko da 2019an, %2,6 arte, horiek ere Consensus Forecasten arabera. Herrialde horrekiko aurreikuspenak apur bat goratu dituzte. Zikloaren aldeko hedatze fiskalak eta finantza alorreko baldintza onak bultzatuko dute ekonomia estatubatuarra. Beste ekonomia aurreratu batzuetan, moteltzeko seinaleak agerikoagoak izango dira. Japonian, ekonomiaren hazkundera %1,0aren inguruan kokatuko da 2018-2019 epealdian.

Beste aldetik, azaleratzen ari diren Asiako ekonomiek beste eremu batzuetakoak baino hazkunde erritmo altuagoak jasotzen jarraituko dute. Hala ere, Txinaren jarduerak daukan apaltzea adierazle ekonomikoetan geratzen da islatuta. Orobat, moteltze hori areagotuko dela aurreikusten da, merkataritzako arazoaren ondorioz. Ziurgabetasuna jokaera protekzionistaren hedaduran eta beraren gogortzean datza.

Eurogunean, Consensus Forecastek aurreikusi duen hazkunde ekonomikoa %2,1ean kokatuko da 2018an eta %1,8an, berriz, 2019an. Tasa horiek beheranzko berrikusketak ekarri dute, Alemanian, Frantzia eta Italia espero den hazkundera okertuko dela aurreikusten delako. Europako Banku Zentralak espero du interes tasak gaur eguneko mailan jarraituko dutela gutxienez 2019ko uda arte. Aurreikuspen horien oinarrian, finantziaziorako baldintza onak eta nahiko egonkorra bilakatuko den euro bat daude. Dena dela, arriskuak ere badaude. Haietako batzuk orokorrak dira, hala nola merkataritzako gatazkak eta petrolioaren garestitzea, baina beste batzuk ekonomia eremu horretakoak dira, esate baterako Brexitaren negoziatioak, moneta politikaren aldakuntza eta Eurogune herrialde batzuetan bizi diren tirabira politikoak.

1. Entorno económico en el que se contextualiza el presupuesto 2019

Los presupuestos de 2019 se enmarcan en un contexto de crecimiento favorable, pero con riesgos al alza. Los organismos internacionales esperan una estabilidad en el crecimiento económico mundial en 2018, con una ligera tendencia a la desaceleración para 2019. Así, las previsiones publicadas en septiembre por Consensus Forecasts sitúan la tasa de crecimiento de la economía mundial en el 3,3% para 2018 y en el 3,1% para 2019. Estas tasas reflejan un mantenimiento del crecimiento mundial y cada vez serán menos los países que muestren un avance expansivo. El aspecto clave es la materialización de las barreras comerciales, elemento que drenará al comercio mundial y también elevará la incertidumbre, con el consiguiente impacto negativo en la inversión.

Respecto a las economías avanzadas, el crecimiento económico de Estados Unidos se situará en el 2,9% en 2018 y se ralentizará moderadamente hasta el 2,6% en 2019, según Consensus Forecasts. Sus perspectivas han sido revisadas ligeramente al alza. La economía estadounidense se verá impulsada por la expansión fiscal procíclica y las favorables condiciones financieras. En otras economías avanzadas, las señales de desaceleración serán más evidentes. En Japón, el crecimiento económico se situará en torno al 1,0% en el horizonte 2018-2019.

Por otra parte, las economías emergentes asiáticas continuarán con ritmos de crecimiento superiores a las de otras regiones. No obstante, la moderación de la actividad en China queda reflejada en los indicadores económicos. Además, se prevé que dicha ralentización se acentúe con las disputas comerciales. La incertidumbre se encuentra en el alcance y la extensión del recrudescimiento de los posicionamientos proteccionistas.

En la zona del euro, el crecimiento económico previsto por Consensus Forecasts se situará en el 2,1% y el 1,8% en 2018 y 2019, respectivamente. Estas tasas suponen una revisión a la baja debido al empeoramiento registrado en el crecimiento esperado para Alemania, Francia e Italia. El Banco Central Europeo espera que los tipos de interés se mantengan en los niveles actuales hasta al menos el verano de 2019. Estas perspectivas se basan en unas condiciones financieras favorables y un euro relativamente estable. Con todo, no están exentas de riesgos. Algunos de estos riesgos son generales, como los conflictos comerciales y la subida del precio del petróleo, pero otros son específicos del área económica, como las negociaciones sobre el Brexit, el cambio de política monetaria y las fricciones políticas en algunos países de la zona del euro.

Espainiako ekonomiarako hazkunde aurreikuspena, bai Consensus Forecastek aurkeztu duena bai Ceperederena, %2,7an kokatzen da 2018rako eta %2,3an, berriz, 2019rako. Ekonomiaren bizitasuna barne eskarian oinarrituko da, ekonomia eragileen aurreikuspen positiboek sortzen duten testuinguru batean. Familien kontsumoa BPGaren hazkundearen motor nagusia izaten jarraituko du. Hala eta guztiz ere, moteltzeko joera kontuan hartu den aurreikuspen denbora osora hedatuko da. Enpleguak sortzeko erritmoa gutxituko da, interes tasak igoko dira eta prezioak garestituko dira. Hiru faktore horiek eskariaren agregatuen hazkunde txikiagoa ekarriko dute berekin.

Lanaldi osoko lanpostu baliokidetan, Ceperdek moteltzeko joera neurritsua aurreikusten du eta aldakuntza tasa %2,5ean kokatu du 2018rako eta %2,0an, berriz, 2019rako. Beste aldetik, langabezia tasari buruz egin dituzten aurreikuspenek beheranzko joera erakusten dute eta %15,4an kokatzen dute 2018an eta %14,0an, berriz, 2019an.

Ingurune makroekonomikoaz ezagutu diren koiunturako informazioa eguneratuta eta EAEko ekonomiaren berariazko adierazleak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa berrikusi du 2018rako eta 2019rako. Urte horietarako hazkunde aurreikuspenak ez dira aldatu eta gaur ere hazkunde sendoa eta iraunkorra aurreikusten da, ekonomiaren bizitasuna apalduko den arren. Izan ere, BPGaren aldakuntzei buruz dauden aurreikuspenek %2,8an kokatzen dute hazkundea 2018an eta %2,3an 2019an. Kontuan hartu den epealdi osoan, hiruhilekoko hazkunde tasek bilakaera egonkorra izango dutela espero da.

EAEko barne produktu gordinaren hazkundea bultzatuko duen motor nagusia barne eskaria izango da berriro. Agregatu horrek 2,9 puntu ekarriko dizkio EAEko ekonomiaren hazkundeari 2018an eta 2,4 puntu 2019an. Familiek azken kontsumoan eginiko gastua eta enpresek ekipamendurako ondasunetan egingo duten inbertsioak izango dira ekonomiaren sustatzaile behinenak. Lan merkatuaren egoera onak eta interes tasa apalek aurkia islatuko dute, EAEko kontsumitzaileek eta enpresariak konfiantza izango duten testuinguru batean. Ifrentzua, berriz, Eurogunerako aurreikuspen ekonomikoak beherantz berrikusi izana da. Eszenategi makroekonomiko berrian kontuan hartu den epealdian, esportazioak eta inportazioak berdintsu haziko direla espero da, kanpo eskariak BPGaren hazkundeari ekarpen hutsala egingo diola bai 2018an bai 2019an.

La previsión de crecimiento de la economía española, estimada tanto por Consensus Forecasts como por Ceperde, se sitúa en el 2,7% para 2018 y en el 2,3% para 2019. La base del dinamismo económico será la demanda doméstica, dentro de un contexto de perspectivas positivas de los agentes económicos. El consumo de las familias continuará siendo el principal motor de crecimiento del PIB. No obstante, la tendencia de desaceleración planea a lo largo del horizonte de previsión considerado. La ralentización en el ritmo de creación de empleo, el aumento de los tipos de interés y la subida de los precios serán factores que causen la moderación de los agregados de la demanda.

En términos de puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo, Ceperde adelanta una moderada desaceleración y sitúa la tasa de variación en el 2,5% en 2018 y en el 2,0% en 2019. Por otra parte, las perspectivas sobre la tasa de paro muestran una tendencia de moderación y se estiman en el 15,4% en 2018 y en el 14,0% en 2019.

Con la actualización de la información coyuntural sobre el entorno macroeconómico y los indicadores propios de la economía vasca, la Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco ha revisado el cuadro macroeconómico de la economía vasca para el año 2018 y 2019. Las perspectivas de crecimiento para esos años permanecen invariantes y se sigue previendo un avance fuerte y sostenido enmarcado en un perfil de moderación del dinamismo económico. Así, las previsiones sobre la variación del PIB sitúan las tasas en el 2,8% y 2,3% para 2018 y 2019, respectivamente. Para todo el horizonte temporal contemplado, se aprecia una significativa estabilidad en las tasas de crecimiento intertrimestral.

El principal motor que dinamizará el crecimiento del PIB vasco continuará siendo la demanda interna. Este agregado aportará al crecimiento de la economía vasca 2,9 puntos en 2018 y 2,4 puntos en 2019. El gasto en consumo final de los hogares y la inversión empresarial en bienes de equipo serán los componentes líderes en el avance económico. La buena situación del mercado laboral y los bajos tipos de interés reflejarán la cara con un entorno de confianza en los consumidores y empresarios vascos. La cruz será la revisión a la baja de las previsiones económicas para la zona del euro. En el horizonte temporal contemplado en el nuevo escenario macroeconómico, se prevé un incremento similar de las exportaciones y las importaciones, que conllevará una aportación de la demanda externa constante y prácticamente nula al crecimiento del PIB tanto en 2018 como en 2019.

| EGOERA MAKROEKONOMIKOA ESCENARIO MACROECONÓMICO | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|------|------|------|
| EAE-KO BPG | 2,9 | 2,8 | 2,3 |
| PIB CAE | | | |
| Azken kontsumoko gastua Gasto en consumo final | 2,9 | 2,5 | 2,1 |
| Etxeetako kontsumoko gastua Gasto consumo hogares | 3,0 | 2,6 | 2,1 |
| Administrazio publikoen kontsumoko gastua Gasto consumo AAPP | 2,4 | 2,2 | 1,8 |

| EGOERA MAKROEKONOMIKOA ESCENARIO MACROECONÓMICO | 2017 | 2018 | 2019 |
|--|-------------|-------------|-------------|
| Kapital-eraketa gordina Formación Bruta de Capital | 3,3 | 4,0 | 3,0 |
| Barne-eskaria Demanda Interior | 3,0 | 2,9 | 2,3 |
| Kanpo-eskariaren ekarpena Aportación demanda externa | -0,1 | -0,1 | -0,1 |
| Lehen sektorea Sector primario | 6,8 | -3,4 | -2,7 |
| Industria Industria | 3,1 | 3,1 | 2,3 |
| Eraikuntza Construcción | 3,8 | 2,9 | 1,8 |
| Zerbitzuak Servicios | 2,7 | 2,8 | 2,4 |
| Balio erantsi gordina Valor añadido bruto | 2,9 | 2,9 | 2,3 |
| Ekoizpenaren gaineko zergak Impuestos s/producción | 2,8 | 2,7 | 2,1 |
| BPGren deflatoarea Deflactor PIB | 3,6 | 4,0 | 3,7 |
| Enplegua Empleo | 2,1 | 2,0 | 1,4 |
| LANGABEZIA-TASA (BATEZ BESTEKOA) TASA DE PARO (MEDIA) | 11,3 | 10,6 | 10,0 |

Ekoizpen sektoreak aztertuta, jarduera adar guztiek, lehen arloak izan ezik, balio erantsi gordinari ekarpen positiboak egingo dizkiotela aurreikusten da. Taula makroekonomiko berriaren arabera, nekazaritza eta arrantzako adarrak narriadura ezagutuko du kontuan hartu diren bi urteetan. Gainontzeko sektoreei dagokienez, eraikuntzarako gehikuntza tasa esanguratsuak aurreikusten dira, bizitasun indartsuko seinale garbiak emanez. Beste aldetik, industriak eta zerbitzuek ere hazkunde tasa garrantzitsuak lortuko dituzte beren balio erantsi gordinean. Industriak moteltzeko joera erakutsiko du European, oro har, eta Alemanian zein Frantzia, batez ere, jarduerak biziko duen apaltzearen ondorioz.

Lan merkatuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako aurreikuspen berriek zehazten dute enplegua %2,0 haziko dela 2018an eta aldakuntza tasa %1,4 izango dela 2019an. Tasa horiek esan nahi dute aurten 19.000 enplegu inguru sortuko direla eta 13.500 inguru, berriz, datorren urtean. Beste aldetik, langabezia tasa %10,6an kokatuko dela 2018an kalkulatu da eta %10,0ra iritsiko dela 2019ko batez bestekoan. Hori horrela bada, 2019ko bigarren seihilekoan langabezia tasaren erregistro batzuk %10,0aren azpian egongo dira.

2. Aurrekontuaren testuingurua: aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzen iraunkortasuna

2019ko aurrekontua bat etorri behar da azaldutako egoera ekonomikoarekin, sektore publikoko aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta ekonomiaren hazkuntzan zein gobernuaren helburuen lorpenean daukan ekarpena sustatzeko.

Analizando los sectores productivos, se esperan contribuciones positivas al valor añadido bruto por parte de todas las ramas de actividad, con la única excepción del sector primario. Esta rama de agricultura y pesca sufrirá, según el nuevo cuadro macroeconómico, un deterioro en los dos años considerados. Respecto a los demás sectores, para la construcción se prevén incrementos significativos, dando claras señales de un sólido dinamismo. Por otra parte, también la industria y los servicios marcarán importantes tasas de crecimiento en su valor añadido bruto. El sector industrial mostrará una tendencia de moderada ralentización, motivada por la desaceleración de la actividad en Europa, principalmente en Alemania y en Francia.

Respecto al mercado laboral, las nuevas previsiones del Gobierno Vasco reflejan un incremento del empleo en 2018 del 2,0% y para 2019 la variación será del 1,4%. Estas tasas equivalen a una creación de 19.000 empleos aproximadamente en 2018 y de en torno a 13.500 empleos en 2019. Por otra parte, la tasa de desempleo se estima en el 10,6% en 2018, y llegará hasta el 10,0% en término medio para 2019. De esta manera, en el segundo semestre de 2019 se esperan registros de la tasa de paro por debajo del 10,0%.

2. Contexto presupuestario: estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera

El Presupuesto de 2019 debe ser coherente con el escenario económico descrito, de manera que se garantice la estabilidad presupuestaria del sector público y se potencie su contribución al crecimiento de la economía y al logro de los objetivos del Gobierno.

Aurrekontu-arloko politikan, beraz, eragina izango du aurrekontuaren egonkortasunari eta jasangarritasun finantzarioari buruzko araudiak. Eusko Jaurlaritzak, hain zuzen ere, honako hauexen ondorioz aurrekontuaren egonkortasunaren eta jasangarritasun finantzarioaren arloan sortutako arau guztiak bete behar ditu: Batasun Ekonomiko eta Monetarioko Egonkortasun, Koordinazio eta Gobernantza Ituna eta Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Jasangarritasun Finantzarioari buruzko Lege Organikoa.

Testuinguru horretan, gobernuari eusten dioten bi alderdien hitzarmena oso argia da finantza publikoen kudeaketa arduratsuari begira, honako hauxe xedatzen delako bertan: "behar besteko konpromisoa hartzen dute, Euskadiko defizit publikoaren helburuari eusteko eta euskal zor publikoaren maila egonkortzeko, Europar Batasunak zehaztutako eta Estatuko Egonkortasun Planean zaldutako helburuak kontuan hartuta. Izan ere, gizarte-politikei eta funtsezko zerbitzu publikoei eragin gabe garatuko da".

Kasu honetan, Estatuarekin hitzartutako defizitaren helburua BPGd-ren % -0,1ekoa da 2019rako eta % 0,0koa 2020rako. Hala ere, aurrekontu-proiektu honek aurrekontu-oreka gordetzen du.

Zorrari dagokionez, Estatuarekin 2019rako adostutako zorraren helburua BPGd-ren %13,8 da. Edonola ere, aurrekontuen proiektu honen zorraren helburua %13,2 da; horrenbestez, %13,0ko atalera hurbiltzen da, hain zuzen ere, Autonomia Erkidegoen egonkortasun arauak ezartzen duten ehunekora.

Baldintzatzaile horien ondorioz, 2019-2020ko epealdia zerga-arloa sendotzeko epealdia izango da, ondorioak ondorio. Hau da, sasoi horretan, defizitaren etena itxi eta zorraren kopurua murriztuko beharko da BPGd-ri begira. Horrela, apurka-apurka, etorkizuneko atzeraldietarako maniobra-marjina irabazi eta gaitasun handiagoa eduki ahal izango da sortzen diren premia berriei aurre egiteko besteko baliabide berriak zuzkitzeko

3. Politika ekonomikoaren eta aurrekontu politikaren orientabideak 2019an

La política presupuestaria vendrá así determinada por la normativa de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera. El Gobierno Vasco está sujeto al conjunto de normas de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera que emanan del Tratado de Estabilidad, Coordinación y Gobernanza de la Unión Económica y Monetaria y de la Ley Orgánica de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

En este contexto, el acuerdo de los dos partidos que sustentan el gobierno es muy claro en lo que respecta a la gestión responsable de las finanzas públicas, ya que establece el "compromiso de mantener el objetivo del déficit público que corresponde a Euskadi y estabilizar el nivel de deuda pública vasca, de conformidad con los objetivos establecidos por la Unión Europea y recogidos en el plan de estabilidad del Estado, que se desarrollará sin afectar a las políticas sociales ni a los servicios públicos fundamentales".

En el presente caso el objetivo de déficit acordado con el Estado para 2019 es del -0,1% del PIB y del 0,0% para 2020. No obstante, el presente proyecto de presupuestos presenta equilibrio presupuestario.

Con respecto a la deuda, el objetivo de deuda acordado con el Estado para 2019 es del 13,8% del PIB. No obstante, el presente proyecto de presupuestos presenta un objetivo de deuda del 13,2%, encaminándose por tanto hacia el umbral del 13,0%, que la normativa de estabilidad fija para las Comunidades Autónomas.

A la vista de estas condicionantes, el periodo 2019-2020 será también un periodo de consolidación fiscal con todo lo que ello representa. Es decir, un tiempo para cerrar la brecha del déficit y para reducir el volumen de deuda en términos de PIB, de forma que progresivamente permita volver a ganar margen de maniobra para futuras recesiones y ganar capacidad de asignar nuevos recursos a las nuevas necesidades que se vayan presentando.

3. Orientaciones de la política económica y presupuestaria en 2019

Euskadik Giza Garapen Jasangarriaren alde egin duen apustu berrituan, apirilean onartutako Euskadi Basque Country 2030 Agenda hartu behar da kontu-kontuan. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak lehentasuna eman behar die Nazio Batuen 2030eko Agendan zehaztutako Garapen Jasangarriako Helburuei (GJH) erantzuten dieten ekimenei. Lerrokadura horrek aldi berean bermatzen ditu pertsona guztientzako funtsezko zerbitzuak eta kalitate handiagoko enplegu-aukerak sortzen dituen hazkuntza jasangarria, hazkuntzaren eta gizarte-ongizatearen euskal ereduaren ezaugarri bereizgarriak direla kontuan hartuta. Elkarren menpeko binomio banaezin hori pertsonan oinarritutako mundu-ikuskeraren ondorioa da, eta planetaren babesarekin zein elkarbizitza baketsuarekin hartutako konpromisoa berresten du. Izan ere, oparotasuna sortzeko gai ere bada, auzolanaren espiritutik elkarlanean eta ondasun erkidearen defentsan oinarrituta dagoen ereduaren bitartez eta ikuspegi zatituen edo egosistemikoen gaintik ikuspegi ekosistemikoa jartzen duen kontzientzia-mailatik egindako lanaren bidez. (O. Scharmer, K. Kaufer, (2013), *Leading from the emerging future, from ecosystem to ecosystem economies*, Berret Koehler Publishers, Inc.)

Hona hemen legealdi honetarako koalizio-hitzarmenean herrialdeari begira zehaztutako lau zutabeak: 1) enplegua, susperraldia eta jasangarritasuna; 2) giza garapena, integrazio soziala, berdintasuna eta kalitateko zerbitzu publikoak; 3) bizikidetzeta eta giza eskubideak; eta 4) autogobernu handiagoa eta hobea. Euskadi Basque Country 2030 Agenda zutabe horien gainean eratu da, hain zuzen ere, eta, bertan, gure lurraldeko errealitatea kontuan hartuta Nazio Batuen Agendako Garapen Jasangarriako 17 Helburuekin (GJH) lotutako xedeak eta jomugak elikatzen dituzten politika sektorialak nabarmentzen dira.

Errealitate horretan, gainera, zeresan handia dute lehendakariak behin eta berriro aipatutako lau erronkek, hau da, erronka demografikoak, hezkuntzaren erronkak, digitalizazioaren erronkak eta nazioarteko ezarpenaren erronkak. Erronka horiek konplexuak dira, Euskadik haien izaera sistemikoari aurre egin behar die eta, sailarteko erantzunak behar dituztenez, ahalegin handiagoa egin behar da koordinazioan, haiei aurre egiteko egin beharreko ahaleginen koherentzia, lerrokadura eta konbergentzia bermatu ahal izateko.

Erronka horiei guztiei aurre egin nahi izanez gero, era guztietako politika publikoak jarri beharko dira abian, eta koherentziaz bat egin beharko dute, baldintzatzen dituzten dimentsio guztiak jorratu ahal izateko. Hori dela eta, gobernu-ekintzaren ezaugarri bereizgarritzat hartutako integrazioaren eta zeharkakotasunaren aldeko apustua egiten denez, garapen jasangarriaren hiru dimentsioak hartzen dira kontuan (soziala, ekonomikoa eta ingurumen-arlakoa). Era berean, zeharkakoa ere bada, proposatutako erronkei aurre egiteko behar diren politika publikoetako arlo guztiak estali eta eragina duelako haietan, bere lidergoa politika publiko sektorial zehatz batera mugatu gabe. Horixe bera da, hain zuzen ere, Gobernuak ekonomiaren zein aurrekontuen arloan daukan politikaren orientazioa, bere helburua ondoren azaldu eta adierazitako erronkei modu sistemikoan aurre egitea denean.

La renovada apuesta vasca por el Desarrollo Humano Sostenible viene marcada por la Agenda Euskadi Basque Country 2030, aprobada el pasado mes de abril, y que conlleva la priorización por parte del Gobierno Vasco de aquellas iniciativas que responden a los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) recogidos en la Agenda 2030 de Naciones Unidas. Un alineamiento que garantiza de forma simultánea los servicios esenciales a todas las personas y un crecimiento sostenible que genere oportunidades de empleo de mayor calidad, señas de identidad del modelo vasco de crecimiento y bienestar social. Un binomio indisociable e interdependiente que es el fruto de una visión del mundo centrada en la persona, que reafirma el compromiso con la protección del planeta y la convivencia en paz, capaz de generar prosperidad a través de un modelo basado en la colaboración y en la defensa del bien común, desde el espíritu de "auzolana", operando desde un nivel de conciencia que antepone una visión ecosistémica, por encima visiones parceladas o egosistémicas. (O. Scharmer, K. Kaufer, (2013), *Leading from the emerging future, from ecosystem to ecosystem economies*, Berret Koehler Publishers, Inc.)

Los cuatro pilares de país formulados en el acuerdo de coalición para la presente legislatura: 1) El empleo, la reactivación y la sostenibilidad, 2) El desarrollo humano, la integración social, la igualdad y los servicios públicos de calidad, 3) La convivencia y los derechos humanos y 4) Más y mejor autogobierno, son la base sobre la que se ha construido la Agenda Euskadi Basque Country 2030, destacando aquellas políticas sectoriales que alimentan los objetivos y metas vinculados a los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) de la Agenda de Naciones Unidas teniendo en cuenta nuestra realidad territorial.

Una realidad marcada por cuatro retos mencionados de forma reiterada por el Lehendakari y que son el reto demográfico, el reto de la educación, el reto de la digitalización y el reto de la internacionalización. Retos caracterizados por la complejidad, a cuyo carácter sistémico se enfrenta Euskadi y que precisan respuestas interdepartamentales, lo que exige un mayor esfuerzo de coordinación para garantizar la coherencia, el alineamiento y la convergencia de los esfuerzos que se requieren para afrontarlos.

Retos todos ellos que exigen del concurso de políticas públicas diversas que deberán converger de forma coherente para abordar las diferentes dimensiones que los condicionan. Por ello se apuesta por la integración y la transversalidad como señas de identidad de la acción de gobierno, de modo que la misma abarca las tres dimensiones del Desarrollo Sostenible (social, económica y medioambiental) y es también transversal, porque cubre e incide en todas las áreas de las políticas públicas necesarias para abordar los retos planteados, sin que su liderazgo pueda adjudicarse a una determinada política pública de carácter sectorial. Esta es precisamente la orientación de la política económica y presupuestaria del Gobierno, orientado a afrontar de forma sistémica los retos señalados y que se describen a continuación.

3.1. Erronka demografikoa

Zeharkako erronka da, Gobernu Programaren zutabeekin bat egiten du, eta ezinbestekoa da Euskadiren orainari eta etorkizunari begira. Erronka konplexu horri zenbait frontetatik eta politiketatik aurre egin behar zaio. Gizarte-politikak, etxebizitza, enplegua, hezkuntza, osasuna... Guzti-guztiak politika sektorialak dira, eta garrantzi nabaria daukate gero eta protagonismo handiagoa daukan erronka horri aurre egiteko orduan. 90eko hamarkadan, jaiotza-tasak behera egin zuenez, gaur egun guraso izateko izangai gutxiago daude. Horrez gain, faktore sozialek edo egiturazkoek ere seme-alabak edukitzeko erabakia murriztu edo atzeratu egiten dute, kasurik onenean; esate baterako, ikuspegi materiala, bizitegi-arlokoa eta lan-arlokoa, gazteen lan ezegonkorra edo zainketetako genero-desberdintasuna, txiroen txirotasunaren kronifikazioa.

Hona hemen behar bezala lotuz gero erronka demografikoari aurre egiten lagundu behar diguten zumitzak: jaiotza-tasaren gorakada sustatzea eta familiei laguntzeko politikak bultzatzea, genero-desberdintasuna gainditu ahal izateko; gizarte eta osasunaren arloko politikak garatzea, biztanleen zahartzapenari aurre egiteko; gazteentzako enplegua eta belaunaldi-txandaketa sustatzea; kulturarteko integrazioan zein elkarbizitzan aurrera egitea; eta errefuxiatuak hartzea. Besteak beste, honako hauexek dira garrantzizkoenak eta 2019rako aurrekontuan nabaritasun berritua dutenak:

Aldaketa demografikoengatik sortutako premia berrien ondorioz, haien artean biztanleen gero eta zahartzapen handiagoa nabarmentzen dela kontuan hartuta, aurrera egin behar dugu osasun-arreta integraturako eremuan, gaixotasun kronikoak etengabe tratatu daitezen, gizarte zein osasunaren arloko arreta indartu dadin eta lehen mailako arretaren zeregina sendoagoa izan dadin. Hartara, haien premietara egokitutako arreta bermatu ahal izango zaie pertsona guztiei, baita sistemaren beraren jasagarritasuna ere.

Gizartearen gero eta zahartzapen handiagoari aurre egiteko moduko politika sozial eta demografikoak garatu eta jaiotza-tasa sustatu beharra dago.

Behar besteko politikak garatu behar dira, familia-erantzukizunak dituztenek eta familia eratu nahi dutenek euren bizi-proiektua ahalik eta baldintza onenetan garatzeko aukera eduki dezaten. Horretarako, bete-betean lan egin beharra dago eragozleak izan daitezkeen zailtasun ekonomikoak eta lan-zailtasunak gainditzeko, eta, era berean, gaur egungo genero-zailtasunak ere murriztu behar dira.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta gehiago egokitu behar da seme-alabak dituzten familietara, umeen txirotasuna murriztu dadin.

Etxebizitza-politika sustatu behar da, horretarako aukerarik ez dutenei etxebizitza duina eskuratzen laguntzeko, etxebizitzarako eskubide subjektiboari erantzuna emateko eta alokairupeko etxebizitzari lehentasuna emateko. Tresna berrien aldeko apustua egiten da, gazteek etxebizitza eskuratzeko aukera hobekia eduki ditzaten.

3.1. El reto demográfico

Se trata de un reto transversal que conecta los pilares del Programa de Gobierno y que resulta trascendental para el presente y futuro de Euskadi. Un reto complejo que se aborda desde diversos frentes y políticas. Políticas sociales, vivienda, empleo, educación, salud, etc. son todas ellas políticas sectoriales con una relevancia destacable para afrontar este reto que no deja de adquirir un protagonismo creciente. La baja natalidad en la década de los 90 que ahora reduce el número de candidatos a ser padres, junto con aspectos de carácter social o estructural como pueden ser la perspectiva material, residencial y laboral, el empleo precario entre los jóvenes o la desigualdad de género en los cuidados, la cronificación de la pobreza entre quienes la padecen, etc. disminuyen, o en el mejor de los casos retardan, la decisión de tener descendencia.

Favorecer el incremento de la natalidad e impulsar políticas de apoyo a las familias que contrarresten la desigualdad de género, desarrollar las políticas socio sanitarias para hacer frente al envejecimiento de la población, impulsar el empleo de los jóvenes y el relevo generacional o avanzar en la integración y la convivencia intercultural, incluyendo la acogida a personas refugiadas, son mimbres que debidamente entrelazados han de servir para afrontar el reto demográfico. Entre los más importantes y que adquieren una relevancia renovada en el presupuesto para 2019 figuran:

Las nuevas necesidades que plantean los cambios demográficos, entre los que destaca el envejecimiento progresivo de la población, exigen avanzar en un modelo de atención sanitaria integrada, orientado hacia el tratamiento continuado de las enfermedades crónicas, consolidando la atención sociosanitaria y reforzando el papel de la atención primaria. Todo ello, con objeto de garantizar a todas las personas una atención adecuada a sus necesidades y la sostenibilidad del sistema.

El desarrollo de políticas de carácter social y demográfico que afronten el progresivo envejecimiento de la sociedad y la necesidad de fomentar la natalidad.

El desarrollo de políticas que faciliten a las personas que ya tienen responsabilidades familiares y a aquellas que quieran constituir una familia la realización de su proyecto vital en las mejores condiciones posibles, trabajando para superar las dificultades económicas o laborales que puedan impedirlo y reduciendo las desigualdades de género existentes en la actualidad.

Una mayor adecuación de la Renta de Garantía de Ingresos a las familias con hijos de tal manera que se reduzca la pobreza infantil.

El impulso de una política de vivienda que facilite el acceso a una vivienda digna a las personas que no pueden disponer de ella, dando respuesta al derecho subjetivo a la vivienda y favoreciendo prioritariamente el acceso a la vivienda en régimen de alquiler. Se apuesta por nuevos instrumentos que mejoren el acceso de los jóvenes a una vivienda.

Oso adin goiztiarretatik, gurasoei haurtzaindegiko zerbitzuak eskuratzeko erraztasun handiagoak eman behar zaizkie.

Gazteen emantzipazioa bultzatu behar da, prestakuntzarako nahiz enplegurako aukerak sustatzeko eta haien lehen lan-aukera suspertzeko.

Politika publiko horiek guztiek gaintitu behar dugun erroka demografikoaren dimentsioak lantzen laguntzen digute, eta ekintza publikoaren oraina zein etorkizuna zehaztu beharko dituzte politika publikoen hedapenaren bidez. Horrez gain, politika publiko horiek ebaluatu ere egin beharko dira, erabilgarriak diren balioesteko, euren eragina politika sorrarazi duten premien araberakoa den adierazteko eta, hala badagokio, berriro ere zehazteko, erabilgarriagoak izan daitezen.

Gizarte-politiken ekarpena

Erroka demografikoari dagokionez, Familiei Laguntzeko 2018-2022ko Erakundearteko IV. Planean, erroka demografikoarekin zerikusi zuzena duten zenbait helburu estrategiko eta jarduketa azaltzen dira. Besteak beste, honako hauexek dira aurrekontuan eragina duten jarduketa nabariak:

Behar besteko neurriak hartzea, EAEko sektore publikoko langileen bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko.

Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei eustea, mendekoak diren senideak zaindu ahal izateko.

Lan-eszedentziapean dauden langileentzako gaur egungo laguntzak berriro orientatzea, gurasotasunagatiko eszedentzien estaldura ekonomikoa bermatzeko, laguntza horien gaur egungo diseinuaren ondorioz sortutako arazoak kontuan hartuta.

Lan-eszedentziapean dauden edo lanaldi murriztua duten langileentzako gaur egungo laguntzak berriro orientatzea, seme-alaben zainketarako eszedentzien estaldura ekonomikoa hobetzeko, familiek premia berezia daukatenean.

Adingabeak ardurapean dituzten familia-unitateen tratamendua hobetzea Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari, baina, batez ere, kasu honetan:

Apurka-apurka, ardurapeko semeko eta alabako aldiak prestazio ekonomikoak hobetzea.

Umeen txirotasuna prebenitzea eta neska-mutil guztiei umeentzako kalitateko arreta-zerbitzu eskuragarri bezain lorgarriak jasotzeko aukera eskaintzea.

Behar besteko neurriak garatzea, errenta txikiak dituzten familiek Haurreskolak erabiltzeko aukera izan dezaten. Jarduketa honek erroka honetan nahiz hezkuntzaren errokan dauka eragina. Hori dela eta, geroago azalduko dugu xehetasun handiagoz.

Mejorar el acceso de los padres a servicios de guardería desde edades muy tempranas.

Favorecer la emancipación de la juventud, impulsando oportunidades para la formación, el empleo, favoreciendo su acceso a una primera oportunidad laboral.

Cada una de estas políticas públicas contribuyen a abordar las diferentes dimensiones que conforman el reto demográfico al que nos enfrentamos y que deberán marcar el presente y futuro de la acción pública mediante el despliegue de políticas públicas, las cuales deberán someterse a aquellas evaluaciones que permitan valorar la utilidad de las mismas determinando si su impacto responde a las necesidades que dan origen a la política, y en su caso, reformularlas con el propósito de mejorar dicha utilidad.

La contribución de las políticas sociales

Con respecto al reto demográfico, el IV Plan interinstitucional de apoyo a las familias 2018-2022 recoge objetivos estratégicos y actuaciones estrechamente relacionados con el reto demográfico. Entre las actuaciones más destacables y con impacto presupuestario destacan:

La introducción de medidas que faciliten la conciliación de la vida personal, familiar y laboral para las personas que trabajan en el sector público de la CAE.

El mantenimiento de las ayudas a la conciliación de la vida laboral y familiar para el cuidado de familiares en situación de dependencia.

La reorientación de las actuales ayudas a personas trabajadoras que se encuentren en situación de excedencia laboral al objeto de garantizar la cobertura económica de las excedencias por paternidad, teniendo en cuenta los problemas mencionados con el diseño actual de estas ayudas.

La reorientación de las actuales ayudas a personas trabajadoras que se encuentren en situación de excedencia laboral o de reducción de jornada al objeto de mejorar la cobertura económica de las excedencias para el cuidado de hijos/as en el caso de familias en situaciones de especial necesidad.

La mejora del tratamiento de las unidades familiares con personas menores de edad a cargo en el marco del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos. En particular:

La mejora gradual de las prestaciones económicas periódicas por hijo e hija a cargo.

Prevenir la pobreza infantil y favorecer que todos los niños y niñas puedan recibir servicios de atención infantil accesibles, asequibles y de calidad.

El Desarrollo de medidas para el acceso a las Haurreskolak de las familias con rentas más bajas. Esta actuación incide tanto en este reto como en el reto de la educación, donde se detalla con en mayor medida.

Azken batean, jarduketan multzo koherentea da, eta, eskumenen arabera, erronka demografikoari erantzunak eskaintzeko orduan lerrotatuta lan egiten duten Eusko Jaurlaritzako sailen artean daude banatuta.

Osasunaren ekarpena

2013-2020ko Osasun Planean bertan aitortzen den bezala, osasun-sistemen etorkizuna "arreta integratua" da. Paradigma berri hori aldaketa sustatzen ari da, eta, gaur egungo osasun-sistematik horren aldeko apustua egiten duenez, honako dimentsio hauek kontuan hartzen dituen osasun-arloko arazoek ikuspegi zabalagoa daukagu: herentzia genetikoak, ingurumen fisiko zein soziala, bizimodua eta osasun-arretarako sistema.

Azken dimentsio horri dagokionez, euskal osasun publikoaren berdintasuna eta unibertsaltasuna bultzatzeko bektoretzat hartutako lehen mailako arretaren aldeko apustua da osasun-politikatik egin den ekarpen handiena. Apustu horrek zerbitzuaren kalitatea hobetzen du kudeaketako berrikuntzaren bitartez. Arlo horretan, eraldaketa handia gertatu da osasun-sistemaren kudeaketan, eta nabarmen handitu da produktibitatea. Kudeaketa berri hori etengabe ari da berritzen, eta honako tresna hauen bidez ezarri da, besteak beste: kronikotasunaren estrategia; pazienteen estratifikazioa; erakunde sanitario integratuen (ESlen) garapena, zainketak ez zatikatzeko; jardun klinikoa eta autozainketa errazten dituzten teknologiak (Osabide, bitartekaritza elektronikoen hedapena, kanal anitzeko osasun-zerbitzuak...); erizaintzako zeregin berriak; pazienteen jabeakuntza... Horren ondorioz, oso emaitza onak lortu dira herritarrentzat, eta, horrez gain, osasun-arloko gastuari eutsi eta sistemaren jasangarritasuna bermatu ahal izan da.

Osasun-arloko gastu publikoaren kalitatearekin eta eraginkortasunarekin lotutako neurrien barruan, osasun-arloko materialaren erosketan publiko zentralizatu nabarmen da (traumatologiako eta kardiologiako protesiak, besteak beste), baita tratamendu diagnostiko, kirurgiko eta farmakologikorako goi-teknologiako ekipamenduak ere.

Pazienteen jabeakuntza ere bada garrantzi handiko beste arlo bat. Honako hau da xedea: pertsonen partaidetza eta autozainketa sustatzea euren osasunarekin konpromisoa duten eragile aktibo eta kontzientziatu moduan eta bizimodu osasungarriaren kultura bultzatzea (elikatzeko jarraibideak, ariketa fisikoak, adimen aktiboak, erorikoek prebentzioa...). Osasun Eskola-Pazienteen Eskolaren bidez, behar besteko informazioa eta prestakuntza ematen dira, pazienteek, zainzaileek eta, oro har, herritarrek gaixotasunaren kudeaketarako eta osasunaren sustapenerako jakintzak eta trebetasunak bereganatu ditzaten. 2020an parte-hartzaileen kopurua %50etik gorakoa izatea da helburua.

En definitiva, se trata de un conjunto coherente de actuaciones distribuidas competencialmente en diferentes departamentos del Gobierno vasco que trabajan de forma alineada para ofrecer respuestas al reto demográfico.

La contribución de la sanidad

Tal y como reconoce el propio Plan de salud 2013-2020, el escenario futuro de los sistemas de salud es "La Atención Integrada", un nuevo paradigma que está impulsando el cambio y por el que apuesta el actual modelo sanitario, lo que supone disponer de una visión más amplia de la problemática de la salud que comprende dimensiones como la herencia genética, el medio ambiente físico y social, el estilo de vida y el sistema de asistencia sanitaria.

Con respecto a esta última dimensión, la mayor contribución desde la política de salud es la apuesta por la atención primaria como vector para impulsar la equidad y la universalidad de la sanidad pública vasca. Una apuesta que mejora la calidad del servicio mediante la innovación en la gestión. En este ámbito, se está produciendo una transformación importante en la gestión del sistema sanitario, con importantes incrementos de productividad. Esta nueva gestión, que está en continuo proceso de innovación, se ha implementado con herramientas entre las que cabe señalar: la estrategia de cronicidad, la estratificación de pacientes, el desarrollo de organizaciones sanitarias integradas (OSIs) para evitar la fragmentación de los cuidados, tecnologías que están facilitando la práctica clínica y el autocuidado (Osabide, el despliegue de la medicación electrónica, servicios sanitarios multicanal...), nuevos roles de enfermería, empoderamiento de los pacientes... obteniendo unos resultados muy satisfactorios para la ciudadanía, que además permiten contener el gasto sanitario y garantizar de este modo la sostenibilidad del sistema.

Dentro de las medidas relacionadas con la eficiencia y la calidad del gasto público sanitario destaca la compra pública centralizada de material sanitario (prótesis de traumatología y cardiología entre otras) y equipos de alta tecnología para el tratamiento diagnóstico y quirúrgico, así como en el ámbito farmacológico.

Otro ámbito de gran relevancia es el empoderamiento del paciente. Se trata de potenciar la participación y el autocuidado de las personas como agentes activos, concienciados y comprometidos con su propia salud y fomentando una cultura de vida sana (pautas de alimentación, actividad física, mente activa, prevención de caídas...). A través de Osasun Eskola-Escuela de pacientes, se trata de facilitar y proveer información y formación que permita adquirir conocimientos y habilidades en la gestión de la enfermedad y en la promoción de la salud en pacientes, personas cuidadoras y ciudadanía en general. Se persigue para 2020 situar el número de participantes por encima del 50%.

Ahalegin horiek guztiek teknologiaren, faktore demografikoen... ondorioz sortutako goranzko presioa arintzen dute, eta Euskal Osasun Sistema horretara egokitu behar da, bere kalitatea zein jasangarritasuna galdu gabe eta, barruko zein kanpoko koherentziaren mesedetan, beste politika batzuekin lotura handiagoa edukita. Erronkak gero eta konplexuagoak direnez, gero eta ahalegin handiagoa egin behar da politikak koherenteak izan daitezen.

Enplegu-politiken ekarpena

Enplegua dimentsio garrantzitsuetakoa da erronka demografikoari aurre egiteko orduan. 2020ko Enpleguaren Euskal Estrategian, enplegu-politikaren gidalerroak zehaztu ziren; eta, Enpleguaren eta Susperraldi Ekonomikoaren Esparru Programan nahiz 2017-2020ko Enplegu Plan Estrategikoan, arlo eragilea. Horrela, enpleguaren sustapenarekin lotutako programen eta ekimenen betearazpenean erantzukizunak dituzten gobernuko sailen lan-lerroak egituratzen dira. Enplegua bera kontzepzio zabaletik jorratzen da, eta lanaren, hezkuntzaren zein sustapen ekonomikoaren dimentsioekin lotutako faktoreak hartzen dira kontuan. Hartara, funtsezko tresnak ezartzen dira, hazkuntza ekonomiko jasangarria lortzeko eta egonkortasun zein kohesio sozialak erdiesteko. Honako hauek dira helburu estrategikoak:

Gaur egungo langabezia-tasa modu eutsian murriztea, hariak eta 2020ko azken hiruhilekoan %10etik beherakoa izan arte.

2017-2020ko epealdian, 58.000 enplegu suspertzea. Horretarako, enpresa berriak sortzea, lan-aukera gutxien dituztenak kontratatzekeo pizgarriak abian jartzea, lanpostu publikoak sortzea (13.000) eta zaharberrikuntzaren sustapen publikoa areagotzea, enplegua sortzeko sektore intentsiboa da-eta.

2017-2020ko epealdian, 20.000 gazteri lan-aukera eskaintzea.

Lanbidek abian jarritako enplegu-politika aktiboak Gobernuak daukan tresna nagusia dira, langabetuak, balizko aktiboak barne, laneratzeko/berrirori laneratzeko orduan eta lanpostuaren galera prebenitzeko orduan.

Helburu horiek lortzeko, enplegurako prestakuntza bideratu behar da laneratzeko aukera gehiago eskaintzen dituzten sektoreetarantz. Horretarako, informazioa eduki behar da, eta lan-merkatuko joerei hartu behar zaie aurrea. Horrez gain, langabezia-egoerak kronikoak izan ez daitezzen, lan-aktibaziorako neurri bereziak ezarri behar dira giza talde zaugarrientzat edo laneratzeko zailtasun handiagoak dituztenentzat. Bestetik, pertsona guztientzako aukera-berdintasuna sustatu eta haien premiekin lotura handiagoa daukaten zerbitzuak eskaini behar zaizkie enpresei.

Todos estos esfuerzos atenúan la presión al alza producida por la tecnología, los factores demográficos, etc. a los que el sistema vasco de salud ha de adaptarse preservando su calidad y sostenibilidad y avanzando hacia una mayor interrelación con otras políticas, tanto en términos de coherencia interna como externa. La complejidad creciente de los retos a los que contribuye exige estos esfuerzos crecientes de coherencia de las políticas.

La contribución de las políticas de empleo

El empleo es una de las dimensiones relevantes a la hora de abordar el reto demográfico. La estrategia vasca de empleo 2020 estableció las directrices de la política de empleo mientras que el Programa Marco de Empleo y Reactivación Económica y el Plan Estratégico de empleo 2017-2020 concretaban el plano operativo, articulando las líneas de trabajo de los diferentes departamentos de gobierno con responsabilidades en la ejecución de programas e iniciativas vinculados a la promoción del empleo. El empleo se aborda desde una concepción amplia que engloba aspectos vinculados con las dimensiones del trabajo, la educación y la promoción económica con el propósito de considerar aquellos instrumentos que resultan esenciales para alcanzar un crecimiento económico sostenible a la vez que se persigue la estabilidad y cohesión sociales. Los objetivos estratégicos se concretan en:

La reducción de forma sostenida de la actual tasa de desempleo, hasta situarse por debajo del 10% en el último trimestre de 2020;

La incentivación de 58.000 empleos a lo largo del periodo 2017-2020 a través de la creación de nuevas empresas, puesta en marcha de incentivos a la contratación dirigidos a las personas con menores oportunidades de empleo, empleos públicos (13.000) y el fomento público de la rehabilitación como sector intensivo en generación de empleo.

Ofrecer una oportunidad laboral a 20.000 jóvenes a lo largo del periodo 2017-2020.

